

FUNTSEZKO JARDUERAK



1 PROIEKTUAREN INGURUKO HITZALDIAK (NORMALIZAZIORA EDO GIZARTEKO ESTEREOTIPOAK DESEGITEKO BIDEAN)

Hitzaldi hauek interesa duen edonori zuzenduta egongo dira, baina gehienbat ikastetxeetan edo familia kideei emango diegu mota honetako hitzaldiak. Helburua gure proiektua zabaltzea eta honen nondik-norakoa azaltzea da, gizartean dagoen des informazioa eta aurreiritziei irtenbidea emateko edo desegiteko bidean.

2 NORBERE GORPUTZAREN EZAGUTZARAKO TAILERRAK

Tailer hauek zuzenean lan egingo dugun erabiltzaileei zuzenduta egongo da. Tailer hauetan nahi izanez gero beraien gorputzak sakonki ezagutzeko, onartzeko eta ulertzeko aukera izango dute, gure produktuk erabiltzerako orduan esperientzia hobeko bat izan dezaten eta beraien plazerra errazago bila dezaten. Tailer honek gehienbat beraiekiko segurtasuna eskuratzen lagunduko die.





3 **SEXUALITATEAK DUEN FORMA ETA ESKAINTZA EZBERDINAK HITZALDIA**

Tailer honetan sexualitateari buruzko mitoak desegingo ditugu eta sexua ematen den forma guztietan azalduko dugu. Sexua zein eremutan ematen den eta nola ematen den. Hemen fikzioa edo saltzen diguten sexu eredu irrealak eta errealitatea bereiziko ditugu. Honetan gure produktuak azalduko ditugu, erabili daitezken esparruak eta nola erabili daitezkeen.

4 **GURE PRODUKTUEN SALMENTA**

Gure produktuak gure dendan egongo dira salgai eta edozein momentutan izan dezakete produktu hauen berri, bai hitzaldi eta tailerren bidez, bai sare-sozialen bidez eta baita langileetako bati galdetuz ere.

